

Arakil aldeko euskara

JOSE MARI SATRUSTEGI*

Mende honetan galdu da Arakilen euskara. Geu izan gara azken Arnasaren lekuko. Ezagutu nuen gure etxera etortzen zen Ekaiko gizon bat bere herriko euskaraz mintzatzen zena. Gauza bitxia badirudi ere, geroztik *erran* aditzarekin loturik dago haurtzaroko nire oroitzapenetan ekaitarraren irudia. Zergatik esaten du *erran* gizon horrek? -galdetu genion behin aitari. Arakilen hala esaten delako, -izan zen erantzuna. Ez ginen nonbait hizkuntzaren ñabardurak kontuan hartzen genituen bakarrak. Uharte Arakilgo Juan Migel Huarte topatu nuen behin Iruñean eta honako pasadizo hau kontatu zidan: “Zuhatzun urte askoan morroi egondako mutil bat bazen Uharten, eta *Erran* izengoitiarequin ezagutzen genuen Arakilgo hizkera zuelako.”

Arruazun aurkitutako sermoi bilduma batean badaude bost eskuizkribu *erran* aditza darabiltenak eta, ikustean, Arakilgo susmoa etorri zitzaidan burura. Aditz soil baten presentzia ez da aski izkribu bat hangoa dela esateko; Nafarroan beste haran askotakoa izan zitekeen, baina txikitatik datorkigu hurbileko erreferentzia hori Sakana erdialdeko biztanleei.

Aralar iparraldetik, eta Andimendi - Urbasa hegoaldean dituela, Oskiatik Ziordiraino doan Nafarroako lurraldeari esaten zaio Sakana. Berez hiru herrialde zituen garai batean: Arakil sortaldetik, Arainatz erdigunean eta Burunda Arabako mugan. Arainatzen amankomuntasuna erdi aroan desagertu zen 1359. urtean, agintariiek zenbait herri txiki multzo nagusitan biltzea agindu zutenean. Uharte Arakilek honako herriska hauek bateratu zituen: *Muztillano, Argindoain, Etxabe, Agiregi, Mendikoa, Epelloa, Urzegi, Blastegi, Ilardia eta Gatizano*. Hemen nonbait zatekeen Goi-nafarrera euskalki bien muga. Gaurregun Bonaparte printzearen hizkuntz-mapa da berezitasunen adierazgarri nagusia. Irañeta eta Murgindueta Uharteko azpieuskalkian sartzen ditu berak ipar-goi-nafarreraren barnean. Arakilgo beste herri guztiak berriz, *Ihabar, Hiriberri, Satrustegi, Ekai, Zuhatzu,*

* Euskaltzaindia.

Etxarren, Egiarreta, Etxeberri, Irurtzun, Izurdiaga, Errotz eta Urrizola, hego-goi-nafarreran, Oltzako azpieuskalkitzat hartu zituen. Aipatutako izkribu hauek bigarren eremukoak dira zalantzarik gabe, Sakana ekialdekoak Iruñera begira; ez Arruazukoak.

Neuk txikitatik etxean ikasitako euskaran, Uhartetik mendebaldera alegia, ez dugu esaten, adibidez, *borz, verce, aimberce, bost*, 'beste', 'hainbeste' baizik. Kopuru edo multzo adierazgarrietan, *deus (deusican, deusere), guti, arras guti, auniz, chipi* edo *tipi*, arrotz zaizkigu, 'ezer', 'gutxi', 'oso gutxi', 'asko' eta 'txiki' esan ohi dugularik. *Ancinian*, 'eguiazqui', 'icigarri' 'icitu' bezalakak ere ez ditugu erabiltzen.

Erdal mailegutan bada beste desberdintasun oso nabarmena; bokal biren arteko *-n-* mantendu egiten da papera hauetan, Sakana beste alderdian ez bezala: *Tentacione, veneracione, salvacionea*, edota *proporcione, represione, disposicionea*. Andra Mariari dagokion *Concepcione* hitzaren hurbileko *Kontzezion*a pertsona izenaren tradizioa bazen Arruazun, salbuespen bezala. *Misionista* eta *errespondatu* modukorik ez ordea.

Deklinabidean norantzeko *-rat* atzizkia da beste bereizgarri bat: Egunero eramaten zuten bi lagunac Elizaco *atariarat*, eta an egoten cen escazen limosna *Elizarat* goaten ciren persona guztiay (b 230).

Hitz arruntak *-e* bokalez amaitzeko joera azaltzen da testu hauetan, beti horrela ez izan arren: *anime, gracie, aundie; gise berean, aine, lastimegarria*.

Hego aldeko multzoaren beste adierazgarriak ere balegoke, hala nola, *icitu zan, alque cen* edo *anciric* aditzak, *erran* bera, edo *yan, yarri, yequi*, bezalakoak. *Gende, goan, guendu* = 'ken', ahoskatze kontuan eta *urriquil* moduko adibideek zalantzarik gabe erakusten dute Iruñerri aldeko euskara mota dutela izkribu hauek.

Zabala zen, hala ere, hego-goi-nafarreraren eremua eta testuak Arakil ibarrekoak direla zehaztu behar da, ez beste nonbaitekoak. Zoritxarrez Arakigo euskararen lekukotasun gutxi daukagu, eta eredurik ezean, zaila gertatzen da zuzeneko konparatze lana. Azterketen artean Pedro Yrizaren aditz formak daude. Hori dela eta, abiapuntutzat har daitezke berak argitaratutako zenbait parekotasun. *Cere*, aditz laguntzailea agertzen da paperetan: *bedeinkatua cere zu* (c 366). Horren antzeko *dere, derezte*, erabilerak azaltzen dira Gulinan, eta *derezu*, Zian. Aditz laguntzailearen *-zte* atzizkia normala zen ibar honetako euskaran, eta sermoietan dauden *lagun zadazte guciec* (a 22), *zaizaztela* (c 385) formen antzekoak badira Urrizolan, *duzte, diozte*, eta behar bada, *zaizkizten*.

Bustidurari dagokionez, testu hauetan dauden, *giñucen, giñizun, ziñucen* eta antzeko formak Yrizarek azpieuskalki honi buruz mamitutako lanean ere azaltzen dira. Parekotasun gehiago ekar liteke, baina ez da aurkezpen honen helburua iturri guztiak agortzea. Filologian dihardutenen gaia da hori eta izango da norbait sakonki aztertu nahiko duena.

EUSKALKIEN MUGAKO HIZKERA

Izkribu hauek ikuspegi orokor batetik begiratuta, euskalki biren mugakoak direla aitor daiteke inolako zalantzarik gabe. Nafarreraz nahiz gipuzkeraz bikoiztasun orekatuan agertzen da aditz laguntzailea.

Duzu, duzue / dezu, dezue: vici bihar *duzu* (a 136); galdu *dezu* zure anima (a 152). Cein dela uste *duzue* ondasun au? Cein dela uste *dezue* interes estimagarri au? (a 7)

Dugul degu: *Ezpadugu* enpleacen (a 128); Cer billacen *degu* miserableac? (a 61) Aditz honetan bada *dugo* forma zalantzarri bat: Gaurdican arcen *dugo* (b 330). *u>o* idazkera akats hutsa ote? Ala idazleak gogoan zukeen oinarritzko *dogu* baten metatesia?

Gare / guera: emenchen arquicen *gare* humillaturic (b 325); eguiten *guerala* arren adisquidiac (a 46). Perpausa bakar batean bi formac aurki daitezke: aita becatariengandic sortuac *gueranac*, guztiac *gare* becatariac (c 401).

Zuen / zuan. Berriro aldakin biak esaldi berean agertzen dira: Maria Santisima preparatu *zuan*... eta orgatic adornatu *zuen* (c 503).

Den / dan. Cein aundie eta ederra *den* estadu graciescoan dagonaren anime, eta cein isusie eta lastimagarria *dan* pecatuen dagonarena (a 20).

Ciren / ciran. escacen limosna Elizarat goaten *ciren* persona guztiay. Goan *ciran* egun batez Sn. Pedro eta Juan (b 231)

Dena / dana erlatiboan ere ez dago adostasunic eta atal berean bi formac ikus daitezke: Nor izanen da vicico *dena*...nor izanen da escapatuico *dana*? (a 100). Nahi hainbat aldiz agertzen dira bikoiztasun horiek, bestalde, azpieuskalki honetako Yrizaren zerrendatan.

Hiztegiari dagokionez, aldakin oso adierazgarri batzuk era bietan ematen dira, hala nola, *ainberce / hainbeste*: icusi zuenian Sn. Pedroc *ainberce* jende (b 253), *ainbeste* deseacen dituztenac (c 474). *Ecusi / icusi*: *ecusten* ez den ondasun au (a 4), *ecus* zagun oray (a 86); desdichartan *icusiric* (b 235), *icus* zazue bada (a 142). Ahoskatze kontuan ere aniztasuna dagoela dirudi, *gende, jende, yende* grafiac erabiltzen baitira: cein gaizqui portacen diren auniz *gende* (a 189), icusi zuenian Sn. Pedroc *ainberce jende* (b 253), Ysraeleco *yendeac* (b 255). Hiru grafia desberdineko beste hitzic ere aurki daiteke, adibidez, *arima, anima, anime*: galdeguin zagozu demonioari cenbat balio duen zure *arimac*; errespondituco dizu zure *animarengatic* emanen dizula mundu gucie (a 135), da gure *anime*, gure *anima* bai (a 8). Berdin gertatzen da *guztia, gucia, gucie* aldakinekin: guenduco tuzue garaituico tuzue *guztiac* (b 220), duten *gucia* emanen dazut (b 241), emanen dizula mundu *gucie* (a 135). Nahi hainbat adibide eman daiteke: *gracia / gracie, becatu / pecatu*, e.a. Horrenbestez ikusten da edozein mugatan eman daitekeen hizkuntza desberdinen kutsadura.

Arakilgo erdua dela esateko orduan, sermoi hauek aurkitu diren herrian -Arruazun alegia- berdintsu diren adibideak berezi ditut, hurbileko euskalkiaren ukitua sumatzen delakoan. *Maiz* hitza erabiltzen da, 'askotan' esateko: espero dut deituco duzutela ainciniam *maiz* Jesusen izena (b 286). *Pelaya*, 'borroka'. Batalla edo *pelaya* artan (b 210). *Oace*, eta 'goatze' mendebaldeko herrietan. Aditz laguntzailean, *izan / izen* forma biak txandatzen dira eskizkribuan: gulpantiac *izen* balira bezala (b 262), cergatic bada *izan* bihar degu (a 78). Jaungoicoaren ama *izen* baño lenago (c 487). Iraganeko *ciñuten* bustiduradun forma eta antzekoak erabiltzen ditugu nere sorterrian, eta hemen bi aldetara dator, bustidurarekin eta gabe: zuec inbidiaz juzgatu *ciñuten*, zuec crucificatu *ciñuten* (b 258). Limosna escacen icusten *cinuten* probe ura (b 260).

Bustiduraz bestalde, *baño* forma arrunta, eta Arruazun ahoskatzen dugun *beño* aldakia dakartza izkribuak: *baño* cein dela uste duzue ondasun au? (a 6), *beño* emendic aurrera (a 17), *beño* eliceque izanen temeridadea (a 52).

Bear / biar. Bokal ondoko *-e-*, *-i-* bihurtzen da nere sorterrian, eta berdin tartekatzen da sermoi hauetan: *esplicaceco bear* bezalaco aciertoaquin (a 22), *cergatic bada izan biar* degu inbidie munduco aberasai? (a 78); subdito batec *desyacea* principe baten amistadea...? atrebimentu aundiagoa *deseyacia* guizon batec Jaungoicoaren amistadea (a 52); arren *borondateari* contra eguiten diona (94), Jaungoicoaren *borondatia* (a 49); negocioric inportantiena *beguiracia* ainbesteco indiferenciarequin (a 116).

Hitz amaierako *-z / -s* letra biak normalki erabiltzen ditu. Guk *-s* ahoskatzen dugu eta behar bada Arakilen ere berdin zatekeen, zenbait herritan behintzat: *betea izan zare graci eta bendicionez* (c 408), Jaungoicoaren *amistadeas* estadu *graciescoan* (a 38).

Horrenbestez, ez dut uste ausardia denik testu hauek Arakilgo euskaraz idatzirik daudekela esatea. Bost predikuak esku berekoak dira grafiari nahiz hizkerari dagokienez. Horietako hiru alfabetoz sailkatuta sartzen dira lan honetan. Ez dakigu nola iritsiak ziren herrira, horren antzeko letra duen apaizik ez baita agertzen elizako liburuetan. Askotan gerta ohi zen moduan, familiaz edo adiskidantzaz, eskuz esku etorritako izkribuak izan daitezte, beste egile batzuenak ere ba baitaude bilduman. Hemeretzigarren mendeko idazkera txukun eta garbian eginak dira. Hizkera aldetik ez da, noski, literatura jantziaren eredu distiranta. Beranduko testigantza denez, gaztelaniak eta elizako hiztegiak gogor sartua dute muturra eta erdarakadaz beterik dago testua. Baina denbora berean, idatzitako eredurik gabe zegoen ibar honetako euskararen lekukotzat har daitezke sermoiak eta, hutsune nabarmen hori betetzen dutelarik, dokumentu baliagarria dira benetan. Irakurketa bat baino gehiago egin daiteke, noski, beste edozein testutan bezala. Hori dela eta traskribatze lan ahal bezain zehatza egitea da orain argitaratzailearen eginkizuna.

Laburdurak

J.C., Jesu Cristo
 M.Sma., Maria Santisima
 N.A., Nere Adizaleak
 N.A.M., Nere Adizale Maiteak
 N.B.C., Nere Bihotzeko Cristauak
 N.C., Nere Cristauak
 N.J., Nere Jauna
 O.N.J., O Nere Jauna

A

Sermón q. trata del aprecio del alma

Nescit homo precium ejus. Consideratu balezaque Cristabac zenbateco ondasuna daduquen bere gorpuz corruptible ontan, ez dut dudaric paracen N.A.M. aunicec edo guciec obequi portatuco liraquela eta estimatuco

luquetela gueyago ecusten ez den ondasun au, bada Aingueruetaranoco ⁵guciec geldicen dira admiraturic, consideraciarequin bacar(r)ic guizonaren gorpucian arquicen dela ain gauz estimagarria; baño cein dela uste duzue ondasun au? Cein dela uste dezue interes estimagarri ura? Da N.A. gure anime, gure anima bai ceñen precioac ez duen tasaric, ceñen aunditasunac ez duen neurriric, da criatua Jau(n)goicoaren ¹⁰semejanzara, eta ¿norc ezagutuco du onen dignidadea? Bada N. C. atendi zazue, beguira zazue zuen animaren dignidadera eta ya q. ta Jaungoicoa dignatu zan ematea zueri hainbeste balio zuen gauza, cuida zazue, ezazuela galdu, ezazuela despreciatu, Gure anime dago mille peligro eta tempestades inguraturic ¹⁵ysasoan Barcu edo txalupac egoten diren bezala; beti, beti mundu ontan gueran artio dago galceco peligroan, eta alare ez diogu casoric eguin biar? Beño emendic aurrera parazazuen cuidado gueyago eta artu dezazuen empeño aundierequin asunto importante au nai nuque cerbait erran zueri; eracusten duelaric ²⁰cein aundie eta ederra den estadu graciascoan dagonaren anime, eta cein isusie eta lastimagarria dan pecatuan dagonarena, esplicaceco bear bezalaco aciertoaquin, escazugun auxilio divinoa, lagun zadazte guciec logracera paracen degularic vitarteco M. Sma. eta salutacen degularic Ave Mariequin.

Tu quid dicis de te ipso? Quis es tu? ²⁵Criatu zuen Jaungoicoac N.A.M. guizona, escritura sagradoac erraten diguten bezala, lur pisca batetic, bere omnipotenciarequin criatu zuen anime deus ezetatic, eta unitu cion gorpuzari eta ecuszazue emen guizonaren edertasuna adornaturic corpuzaren borz sentidoaquin, animaren potenciequin cein batire ³⁰memorie, entendimentue eta vorondatia. Oray bada N.A., J.C. erraten digu daquienac apartacen gauza chiquiac eta despreciableac ederretatic eta preciosoetatic, eguiten dela Jaungoicoaren semejanzacoa. Ecus zagun cein ona dan gracie, eta cer dan Jaungoicoaren desgracie. Guizonac ez dute ezagucen gracieren balioa, *nescit homo precium ejus*, ³⁵eta orrengatic trucacen dute deus ezten gauza batengatic; ondasun au, lur pisca bat, pasione eta gusto pasagero batengatic; bano gracie cer dala uste duzue? Da N.A. tesoro infinito bat eguiten gaituena digno Jau(n)goicoaren amistadeaz. Eta orgatic, estadu graciascoan dagonaren anime da Jaungoicoaren adisquidea. Paganoac. ⁴⁰Fedearen arguiric ez dutenac erraten zuten imposible cela cristau bat allegacia Jau(n)goicoaren adisquidea izatera eta beguiratu ezquero arrazoy naturalari ongi erraten zuten eta gaurco egunian badira auniz persona au bera erraten dutenac, icequin ezpadare obraquin, argatic seguicen dute paganoaren ⁴⁵leguea: baño Jaungoicoac declaraturic dauca escritura sagradoetan eguiten guerala arren adisquidiac obserbacen eta guardacen baditugu beraren mandamentuac, *Vos amici mei estis si feceritis quae precipio vobis*. Orgatic exclamacen zuen Sn. Gregorioc: O Jaungoicoaren borondatia, ez izanic gu digno arren esclavotaco deicen gaitu edisquideac!

⁵⁰Cer diche contatuco luque batec conseguiceas Erreguearen adisquidea? beño eliceque izanen temeridadea subdito batec desyacea Princi(pe) baten amistadea? Bada ez da ezanen temeridade aundiagoa, ez da izanen atrebimentu aundiagoa, deseyacia guizon batec ⁵⁵Jaungoicoaren amistadea? Ez por cierto. Sn. Agustinec erraten digu, Monasteri edo conventu batian cendela bi cortesano eta batec leicen zuela Sn. Antonioren vicie, *legebat et exuebatur mundo cor ejus*, leicen zuela eta denvora berean apartacen cela munduco gusto eta aficionetatic, eta izuliric ⁶⁰bere lagunarengana erran ciola: *quid quaerimus*

miseri! Cer billacen degu miserableac! Allegatu gaitzque Emperadoriaren adisquidiac izatera baño gueyago? Eta naiz allegaturic naiz conseguturic, ez dugu paracen gure salvacioa peligro aundien? Eta izanen da dificultade aundiagoa conseguizea ⁶⁵Jaungoicoaren adisquidia izatia? Eguiazqui ezez: *amicus autem Dei, si voluero, ecce nunc fio*, bada naibaduzue izan zaizquete Jaungoicoaren adisquideac instante ontan. Arquicen dena bada Jaungoicoaren gracien, ura da arren adisquidea, eta oraindic gueyago, da arren semea izatea: *Ecce dii estis et filii excelsi omnes.* ⁷⁰Au da Jesusen amorioac conseguitu ziguna.

Estadu graciescoan dagonaren anime da ain ederra Jaungoicoaren aurrean, bada berac Jaungoicoac berac glorificacen du. Sta. Brigidac erraten du, cristabac ez dezaquela Jaungoicoaren gracien danaren anime contentu eta gozos ill gave. Considera zazue bada N.C. ⁷⁵nolacoa ote dan animaren edertasuna estadu graciescoan arquicen den denboran. Eta cembat merito ez dechaque conseguitu estado glorioso ontan? Instante bacochean consigui dezaque glori eterna. Cergatic bada izan biar degu invidie munduco aberasai conseguí badezaqueguque instante batian cerue? Eta nor da au pensacen duena? ⁸⁰Eta corpuz corronpitu ontan egon biar duela ainbesteco ondasuna estalien, gauz arrigarria da au N.A. baño gozacen duenac bacarric ezagutu dezaque gracien dagon animarren descansue eta paquea: *pax multa diligentibus legem tuam.* Ez da minganic explicatuco duenic cembat ⁸⁵estimacen duen Jaungoicoa(c) persona justo baten anima. Baño ecuszagun oray Jaucoicoaren desgracien dagonaren anima cein lastimagarria dan. Anima miserable au dago apartaturic Jaungoicoarengantic, eta ez au bacarric, baicic aborrecicen du auniz eta botacen du Ynfarnuetara. Jaungoicoac ⁹⁰amacen eta estimacen ditu munduco creatura guciec animalietaraño guciec, baño ez dezaque uzi aborrecitu gave becatarien anime: *odisti omnes qui operantur iniquitatem.* Bai por cierto, aborrecicen du, cergatic Jaungoicoac ez dezaque amatu becatue, becatue da enemigo bat arren borondateari contra ⁹⁵eguiten diona. O N.J. Norbaitec balu munduen principe bat bere enemigoa, ez luque paqueric izanen, ez lizaque vicico soseguen, cergatic bildur izanen liceque guentuco ote dion vicie, eta iduquiric principe gucien Errguea irreteturic pecatarien contra nor izanen da vicico dena ainbesteco soseguan? Munduco ¹⁰⁰principe eta enemigoetatic escapa daiteque, baño nor izanen da escapatuco dana Jaungoicoaren escuetatic? Becatari miserableac dira madaricatuac Jaungoicoarengandic, madaricatuac Aingeruengandic, madaricatuac egunoro sacerdotianganñic errezacen tutenian oficio divino(an): *Maledicti qui declinant á mandatis tuis.* Bada dauque verequin ¹⁰⁵mercimentu gucien desgracie, Jaungoicoaren semeac izanic eguiten dire demonioaren esclavoac, adisquide maitetatic enemigo detestabliac, ceru herederotatic condenatuec infernuco suetara. Erraten zuen Sn. Franciscoc negar eguiñen luquetela Aingeruac capaz balire, ecusiric becatu mortal batequi animac errecibicen duen desgracie. Baño A! N.A.M. ¹¹⁰desgraci aundiagoa da becataric ez dutela negarric eguiten ecusiagatic beren miserie. Galcen duenac acienda bat, ardi bat, joaten da berla billacera, eta ez da sosegacen, ez du loric eguiten ayec eta topatu arteraño, eta galcen du batec bere anima eguiten duenian becatu mortal bat, galcen du Jaungoicoaren gracie eta alare egoten da ain sosegu ¹¹⁵onarequin deusere eguin ezpalu bezala N.A. izanic gure animaren salvacioa negocioric inportantiena begiracia ainbesteco indiferencierequin. N.B.C. ecusi dezue nola estimacen duen Jaungoicoac estadu graciescoan dagonaren

anime, ecusi dezue cein abominablea dan pecatuen dagonarena Jaungoicoaren ancinian. ¹²⁰Paracen dezue ainbesteco cuidadoa munduco gauzetan, besteren negocioetan, eta animaren negocie dagoala gueldi? Noiz pensacen dezue bada eguitea animaren salvacioraco conbeni zaizuen? Erran zadazue noiz? Eriozaco orduen? A desdichatuac ola pensacen badezue. Badaquizue emanen dizuela Jaungoicoac ¹²⁵dembora, eta ala izanic ere iruri zaizue errazago dela oroicea trance miserable artan zuen animas? Eguiazqui ezez Eman zigun Jaungoicoac entendimentue animaren salvacioraco, baño cer probechu ateracen da ontan ezpadugu enpleacen? Desdichatua au ez duena ongi consideracen: *Quid prodest homini si mundum* ¹³⁰*universum lucratur anime vero sue detrimentum patiatu*r, cer aprobechatuco dio munduco ondasun guziec conseguiceac ondorean galcen badu anime? Cerequin erremediato du calte au?

N. viececo Cristabac ezpaduzue ezagucen orandic zuen animaren dignidadea, galdegin zagozu demonioari zembat valio ¹³⁵duen zure arimac eta errespondituco dizu, zure animarengatic emanen dizula mundu gucie. Galdegin zaiozu Jaungoicoari cembat valio duen zure arimac, eta instantean errespondituco dizu, berac aine balio duela cergatic gosta cizayon ainbeste, eze isuri baizuen bere odol ¹⁴⁰precioso, ura Demonioaren cautiberiotic libracegatic, izan nicen crucificatua bi lapurren erdien zure animengatic. Icusazue bada peccariac cembateco ondasuna daucazun zure corpuz corronpitu ortan. Eta izanic au eguie N.A. posible da beguiracea ¹⁴⁵olaco indiferencierequin animeren salvacioa? Becatariac, becatari desdichatuac! Iduqui zazue compasioa zuen animas, idugui zazu misericordie zure animas; icusi dezu beraren nobleza eta dignidadea, ezazula despreciatu. Becatariac asqui da becatua! Beguirazazu ¹⁵⁰cein gaizqui tratatu dezun zure anima precioso ori. Eguin dezu becatu? Galdu dezu ceruraco derechoa? Galdu dezu zure anima? Bada remediezazu badaucazu dembora. Jaungoicoac bere misericordiaren medios ematen dizu dembora, aprobe(*cha*) zaite, ezazula ¹⁵⁵despreciatu, bada au izanen da azqueneco predicoa acaso zurezat, bada vici bear duzu mundu ontan veticoa bacina bezala. Ay cein ongui equ(*v*)ocacen zaren. Ez dago bada verce erremedioric, acudizagun Jesusen oñetara, umilla zaite beraren ancinian culpantea ceran bezala. ¹⁶⁰Arquicen da zuen artean personaem bat icusi ondorean hainbeste, ez duena paratuco cuida(*do*) gueyago bere animaren salvacioas. Vada ojala iriquico valiza lurra eta irichico balu viciric. Ojala comuniacera joaten danian Aldare sagradu ortara ateraco baliz hosti consagratu artatic chimista bat ¹⁶⁵eta abrasaturic bialduco bacinuza infarnuetara. Baño N.J. ezazula permititu olacoric, baizic sujerizayozu, bada ezaguturic zure paciencie eta borondate, comberti dayen eta goza dezan egunem batian eternidadeco glorie, cein deseacen dizuen guciari, *In nomine Patris, et Filii*..

B

Sermón que trata del Dulce Nombre de Jesús

¹⁷⁰*Et vocavit nomen ejus Jesum* (Luc. 6, v. 1) Gaurco evangelio santuan erraten dacu Sn. Lucas evengelistac, J.C. gure Jauna sortu eta zorcigarren

egunian izan zala circuncidatua eta paratu ciotela izena Jesus, Aingueru Sn. Gabrielec Maria santisimaren entrañetan concebitu baño lenago paratu cion izen ura ¹⁷⁵bera. Au da N.A.M. egungo evangelioa(c) erraten duena. Laburra izetan baño aundia misterioan cergatic evangelio ontan dauden encerratuac auniz gure religione santuco misterioac, eta nola ez baita posible guztiac esplicacea solamente izeguinen dazutec Jesusen icen santu ¹⁸⁰eta suave ontaz: *et vocavit nomen ejus Jesus*. Jesusen izen santua da ga(u)r Eliz ama santuac celebracen duen festividadea, eta nai dazuten eracusi cein indar aundicoa dan esayaren tentacioneac garaiceco, afligituac consolaceco ta baita ere animaren salvacionea ¹⁸⁵consequiceco: *omnis qui invocaverit nomen ejus salvus erit* Jesusen hizena erraten dutenac vioceco amodio eguiazco batequin ez dirala galduco, baicic *salvus erit* salvatuco da. Eta icuschazute emen cien(*sic*) gaizqui portacen diran auniz gende erraten dituztenac iz izigarriac, ¹⁹⁰Jesusen hicena erran dezaquetela, eta icusico duzue cer milagroac eguin dituen Jesusen izen santu onec. Esplicace(*co*) aciertoarequin biar dut Jauncoaren gracia. O Jesus divinoa! Emanzazu gracia esplicaceco biar bezala zure hicen santuaren viruteac, confundiceco auniz cristauen ¹⁹⁵hizeguitateco modua. Gracia au Jauna escacen dizut humildaderic aundienarequin, eta obequiago obligaceco paracen dugu vitarteco ama Maria SS. eta sa(*lu*)tacen degularic Ave Mariarequin.

Et vocavit nomen ejus Jesum. Batalla aundi bat erraten du Sn. Juan evangelistac izan ²⁰⁰zutela ceruan Sn. Miguel eta bere Aingueru lagunac Lucifer eta bere Aingueru lagun gaiztoen contra, et(*a*) Lucifer eta bere Lagunac vencituac garaituac izan cirala eta vota cituztela cerutic infarnuetara padecicera tormentu icigarriac eternidade guzian. Eta cer armarequin uste duzue vencitu ²⁰⁵cituztela exai sobervio ayec? Ezuten verce armaren necesidaderic izan vaicic Jesusen icena; deicia Jesus asquizantuten, eta izen santu eta suave onequin garaitu cituzten esay guciac: *Existimo quod Angeli boni dicebant vivat Jesus*; uste eta pensacen dut, erraten du Sn. Bernardoc, Batalla edo ²¹⁰pelaya artan oyu eguiten zutela Aingueru santu ayec, vici bedi Jesus, *vivat Jesus*, eta izen santu onen vozarequin garaitu eta vencitu cituzten esai sobervio ayec et(*a*) vota cituzten infernuco calabozoetara. Eta ez izitu, ez da milagro ala gertacia, cergatic Jesusen izena adicearequin ²¹⁵gueldicen dira esaiac izituac eta beren indar eta astuci gaizto guciac erorcen zazquiote lurrera: *Santum et terribille nomen ejus*. Orgatic erraten zuen Sn. Lorenzo Justinianoc: baldin esayac tentacen bazaituzte erran zazute Jesus devocio, humildade eta errespetoarequin ²²⁰eta guenduco tuzue garaituco tuzue guztiac; ain virtute aundikoa da Jesusen izena ece Jaungoicoac berac erran cioten apostoluay, arren izenian vencituco cituztela Demonioac: *In nomine meo ijicient demonia et si mortiferum quid viverint non eis nocebit*. Eta yaten edo ²²⁵edaten baduzue ceinbait gauza perjudicialac zuen osasunarenzaco ez dazute danuric eguiñen: *non eis nocebit*.

Baita ere izicecoa da Apostoluac eguin zuten milagroa Jesusen izenian. Arquicen zan pobre bat mancoa edo macurra bere sorcetic asita, egunoro eramaten ²³⁰zuten bi lagunac Elizaco atariarat, Especiosa deicen cen elizara, et(*a*) an egoten cen escacen limosna Elizarat goaten ciren persona guztiay. Goan ciran egun batez Sn. Pedro eta Juan eta elizara sarcen icusi zuten guizon pobrea(c) escacen ciotela limosna, eta nola Apostolu ayec ezuten deusicam ²³⁵limosna emateco, compaciones beteric desdichartan icusiric

guizon ura, erran cion Sn. Pedroc: boprea(*sic*) beguira zazu neregana. Eta bereala beguiratu zion pobre arc Sn. Pedrori limosna ceinbait emanen ziolacoz, eta erran cion Sn. Pedroc: *Argentum et aurum non* ²⁴⁰*est mihi, sed quod habeo hoc tibi do*, urre eta zilarric ez da arquicen nere poderian baño duten gucia emanen dazut: *in nominr Jesu Nazareni surge eta ambula*, Jesus Nazarenoaren izenian yequi zaite eta zoaz. Lagundu cion berac yequicen eta icus ²⁴⁵zazute desdichatu ura sano eta sartu zan elizara saltoco contentuz beteric eta alabacen zuela Jaungoicoa, *exiliens et laudans Deum*. Ona emen N.A.M. Apostoluac eguin zuten milagroric aundienetatic, baño er(*r*)epara ezazute nola eguin zuten: Jesusen hicienian, *in* ²⁵⁰*nomine Jesu*, jende guciac icusi zuten sendatua ainberce urtes muguicen ezan pobre ura eta erri guciac acuditu zuen Sn. Pedro eta Sn. Juanengana. Eta icusi zuenian Sn. Pedroc ainberce jende, erran cioten: *Viri Ysraelitae, quid miramini in hoc, aut nos quid intuemini*, Ysrraeleco ²⁵⁵gendeac cer icusten duzue miraculo onetan? Uste duzue gueren virtute propioarequin eguin dugula milagro au? Ez, ez dugu ala eguiten. Zuec inbidiaz juzgatu cinuten gaizqui Pilatos presidentearen ancñian, zuec crucificatu ciñuten, eta guc arren icenian sendatu dugu elizaco ²⁶⁰atarian limosnaren escacen icusten cinuten probe ura. Egun gutien barrenean juntaturic guizon jaquinsun guztiac artu cituzten gulpantian(*sic*) izen balira bezala Sn. Pedro eta Sn. Juan erdian juzgaceco, eta galdeguin cioten: noren izenian noren virtutearequin sendadu ²⁶⁵duzue ainberce urtez eri cegon au? Orduan spiritus Santuz beteric erantzun cioten Sn. Pedroc: erran dazutec Jesus Nazareno zuec erioce crudela eman cinioten arren izenian eguin edo sendatu degula eri au. Icuszate cristabac cein virtute aundicoa dan Jesusen izen santua garaiceco ²⁷⁰esayaren tentacione guziac.

Baño ezta erran biar *contunbreas* bezala, baici Jesusen hicena adicen duzutenian biar da alchatu vioza Jaungoicoagan eta inclinat burua lurrara sujeto eta errespetacen degulaco señalean. Eta posible ote da ez desterracia seculaco particularqui gazte ²⁷⁵gendeen artian adicen dan lenguaje escandaloso ori, icusiric Jesusen izenian egiten cituzten prodijioac? A! juramentazale desdichatuac. Cer erresponditu biar diozue Jaungoicoari escacen dazutenian contua certan empleatu duzuen, arc bera alabaceco eman zazuten instrumentua? Cer eranzunen duzu zuc ²⁸⁰murmurazalia ezpaduzu eguiten berce oficioic, baicic paratu gaizqui persona bat berce batequin? A! desdichatuac adituco duzue erremedio gave condenacioneco sententia. Ez da erremedioric juramentazalia, ez da erremedioric blasfemoa, ez da erremedioric murmurazalia, edo izatea constumbre ²⁸⁵gaizto oyec eta acuditu Jesusengana, edo condenacia: *non est in aliquo alia salus*. Espero dut deituco duzutela ainciniam maiz Jesusen izen santua, eta onen medioz adquirituco duzutela constumbre bat ona esayaren tentacioney resistencia eguiteco; et(*a*) baita ere maldicione ²⁹⁰ceinbayt adituri Jesusen izena erraten dutenac irabaci dechaquete Eliz ama santuac concedituric dauzcan auniz indulgenci.

Baita ere da virtu(*te*) aundicoa Jesusen hicen santu au triste dagona consolaceco eta ala animaren nola corpuzaren provechoraco. Onen prueba ona daucagu Sn. Pablo Apostolua, ²⁹⁵ceñen carta edo epistola gucieta(*n*) esda oja bat siquiera arquicen izen santu au aniz aldiz izen santu au erraten ez dana. Sn. Bernardoc erraten zuen eciola gustoric arcen conversacioneay ez bazuen maiz adicen Jesusen izen sa(*n*)tu au. Sn Agustinec erraten dacu yateco eta edateco ³⁰⁰demboran ere ezela conten arren b(*e*)larietan ez bazuen soñu

eguiten Jesusen izenac. Animaco alimentu guciac ez dute balio ezpadaude untatuac Jesusen izen santu onen olioarequin, eta bere trabaju gucietan ezacala berce erremedioric, baizic acuditu Jesusengana ³⁰⁵arren izena deicearequin gueldicen zala consolatua. Tristacen da norbait zuen artean? Galde eguiten zuen Sn. Bernardoc: *tristatur quis in vobis? Veniat ad cor ejus Jesus et inde saliat in os*, datorla in(s)tante berean eta Jesusen hicena arren viozara eta *aderatu* ³¹⁰dadela agotic, eta instantian ezagutuco (*du*) guendua tristeza ura. Erorcen da norbait pecatuan? *Labitur quis in crimen in vobis?* Acudi dezala Jesusengana topatuco du erremedioa, eta hicen daiteque espresione obeagoric au baño? Ez, N.A. ez daique hizan, ³¹⁵ez da posible, eta orgatic eguin zazute zuec ere Sn. Bernardoc eguiten zuena: triste zautenian trabajuetan acudi zazute Jesusengana, berac consolatuco zaituzte. Peligro ceinbaitetan arquicen zeratenian dei zayozute Jesusey, eta particularqui erioceco ³²⁰orduen dei zayozute Jesusey eta erran: *Jesus esto mihi Jesus et salva me*, Jesus hicen zaite nerezat Jesus eta salva nazazu, eta berac lagunduco dazute, berac consolatuco zaituzte. Acudi zazute bada humildaderic aundienarequin Jesusengana.

O Jesus Redentore divinoa! ³²⁵Emenchen arquicen gare humillaturic zure graciaren escacera. Eman zaguzu gracia invocaceco humildade eta errespetoric aundienarequin zure hicen santua. Badaquigu Jauna oray artian ibilitu degula errespetoric gave, injuriatu zaitugula zu eta zure ³³⁰icen santua, baño gaurdican harcen dugo propositu firme bat errateco maiz zure izen santua. Eta Jerico isuaren otoiza: *Jesus fili David miserere nobis*, Jesus Daviden semea urriquil zaite gutaz. Misericordia gutaz oray misericordia, ³³⁵erioceco orduan misericordia, zure tribunalera presentatuac hizaten guereanean logra deza (*gun*) guztioe eternidadeco zore ona deseacen dizutena guztioy. Amen.

C

Sermón de la Purísima Concepción

Non pro te haec lex constituta est, sed pro omnibus. Maria Santissime Conceptionecoaren festibidadea da ³⁴⁰gaur eliz ama santuac celebracen duena, ceñec biar dituen movitu gure viozac, devocio edo veneracione eguiazco bat izatera, ya cergatic dan Religione santuco festaric principalena, ceñetan onrracen dan Jaungoicoaren ama, ya cergatic ama virgina conceptioneoa ³⁴⁵dan Espania guciaren Patronoa, bedecatua millaldis zu mundura sortu zinan ordua, ain tristea eta lastimegarria cegon genero humanoa gure lenbico Aita Adanec becatu eguin zuenian ez baizan arquicen mundu gucian erremedioric arrenzaco, ezan erremedioric ez baliza etorri cerutic. Baño ³⁵⁰norc pensatu bear zuen izanic Jaungoicoa ofenditua jeuchi biar zuela cerutic lurrara pagacera guizona(*c*) bere becatua zala medio zor cituan penac. Inor(*c*) ezezaquen pensatu olaco graciaic, baño eguiazqui ala guertatu zan guizonaren eritasuna sendaceco becatua cometitu ondoren gure Aita Adanec, preciso zan ³⁵⁵munduaren redentoria eguin zadien guizon, eta berce naz Jaungoicotasunian ezezaquen padecitu, ez eta ere ill guizonarengatic. Ontara escogitu zuen Doncella garvi bat ceñen entrana garvietatic atera viar zuan mundu desdichatu arren erremedioa. Do(*n*)celle au izandu zan ama virgiña, cenei ³⁶⁰anunciatu (*cion*) Jaungoicoaren

determinacionea aingueru batec. Doncella dichosoa au erretiratua cengon bere habitacione pobre batean, eta aguertu cizayon Sn. Gabriel Ainguerua mutil gazte eder baten figuran eta yarriric bere ancinian errespeto eta veneracioneric aundienarequin ³⁶⁵saludatu zuen erraten ciola: *Ave Maria gratia plena*, agur Maria graziaz betea, bedeincatua cere zu andre gucien artean. Aditu cituenian Maria santisimac iz oc izitu izutu zan cergatic arc bere ustes ongui cerratua ceducan bere habitacionea eta ezaquien nondic etorri zizayon ³⁷⁰personaje ura, eta ezaguturic Aingueru Sn. Gabrielelec izitu zala, erran cion: *En timeas Maria*, ez bildur izan señora, ni eldu naiz Jaungoicoaren partetic erratera elegitua izan cerala Jaungoicoaren semearen amaz. Eta orduan erran cion aingueruay: ³⁷⁵Aingueru santua, nola izan daiteque ni Jaungoicoaren semen ama izate ez badut ezagutu guizonic? Orduan erran cion: Ez duzu concebituco guizonaren birtutez baicic espiritu santuaren birtutez. Eta eranzun cion Maria santisimac: Emen ³⁸⁰dago Juana zure esclava eguin dadiela zure borondatea, *Ecce ancilla Domini fiat mihi secundum verbum tuum*. Eta instante formatu zuen espiritu santuac J.C. corpuza Maria santissimaren entraña garbietatic. Bedeicatua, Señora, zuc cere sabelean Jaungoicoaren ³⁸⁵semea artu ciñuan ordua. Ala(*ba*) zaizaztela ceruco Aingueruac ya que ta ni enaizen digno zure aunditasunac publicaceco. Baño Señora ezazula veguira nere debilidadeari baicic eman zadazu biar dudan graci guztia esplicaceco nic zure concepcioneco misterio santua. ³⁹⁰Eta obequiago obligaceco saludacen zaitugu humildaderic aundienarequin Aingueru Sn. Gabrielelec bezala erraten dizu(*gu*)la, *Ave Maria*.

Non pro te sed pro omnibus haec lex constituta est. Maria Santisima pecatu originalaren mancharic ³⁹⁵gave concebitua izatea da izan daitequen privilegio edo favoreric aundiena, señora oney bacarric conceditu cizayona. Guztiac sorcen guera pecatu originalaz manchatuac, cein baita gure lendavicico Aita Adan eta Ebac cometitu zutena, cergatic ala nola Aita gaiztoengandic ⁴⁰⁰sorcen diran humeac izaten baitire gaiztoac, modu berean, Aita becatariengandic sortuac gueranac, guztiac gare becatariac, baño Maria Santisima exceptuatua da legue ontatic bere creazaliaren privilegio batez. Guztiac sorcen gare demonioaren esclavo eguiñac, ⁴⁰⁵Jaungoicoarengandic aborrecituac pecatua dala medio. Baño Maria Santisima preserbatua izan zan becatu ontatic graziaz, eta orgatic bere concepcione garvitic asita betea izan zan graci eta bendicionez Jaungoicoac munduara biali dechaquen guztiaz. Gu sorcen ⁴¹⁰guera infarnuco herederu, baño Maria Santisima sortu zan ceruco herederu eguina, eta espiritu santuaren esposa; gu concebituac gare becatuan baño Maria Santisima concebitua izan zan gracion eta bere bici guztian ezen izan becatuen mancharic ez mortal ⁴¹⁵ez venial ez originalarenican.

Maria bere concepcione santuan apartatua izan zan berce gañera creatura guztiac comprendicen dituam legue arretatic, eta au da concepcione imaculatuaz comprendicen deguna, Maria Santisimac ezuela parteric ⁴²⁰gure lendavicico aita Adanen becatuan eta orgatic ezuela secular becatu originalaren mancha berce gañeraco Adanengandic descendicen degunac. Jaungoicoac graci especialas eguin ciyon favore ori ama virginari eta zore onean ⁴²⁵declaratua dago articulo fedecozaz Maria santisima becatu orginalaren mancharic gave concebitua izan zala, *non pro te sed pro omnibus haec lex constituta est*. Au da favore especial bat conceditu cizayona Maria santisimari, cergatic elegitua cegon ⁴³⁰castidade eta santitatearen principiozaz,

Jaungoicoaren amazat eta zor cizayon Maria Ssmi. becatuen mancharic gave concebitua izatea, cergatic arren entrañetatic atera biar zuan castidadearen autorea eta ezan decenete Jaungoicoaren semea izan zadian encar(*na*)tua ⁴³⁵corpuz manchatu batean dan becuric chipienarequin. Orgatic Aingueruac anunciatu cionean encarnacioneco misterioa, salutatu zuen erraten ciola graciaz betea, *gratia plena*, eta eguiazqui ezan izanen graciaz betea instante batez bacarric egon baliza ⁴⁴⁰sugeto, gu bezala becatuara. Justoa zan virgina elegitu zuena Jaungoicoac bere amazan izan zadien creatura guztietan dan garbiena. Aingueruac izan ciran creatuan inocenciaco estaduan, eta gutiago izan biar zuan Aingueru guztien Erreguina? Eguiazqui ⁴⁴⁵ezez. Ez, Aingeru guztiac juntoan ez dute igualacen virgina soberanau inocencian, purezan eta santidadean. Jesucristoren corpuz izan biar zuen Maria Santisimaren corpuzaren barte bat, según erraten digun Sn. Agustinec, eta pensa daiteque Jaungoicoa(*c*) formacea ⁴⁵⁰bere corpuz berce corpuz manchatu batetican? Izanic Jaungoico bat castidaderic aundieneco aborrecicen duena becatua ecin gueyago, sinistu daiteque artu biar zuela bere corpuz becatuz manchaturic zegon corpuz batetic? Ez dezala nai izan Jaungoicoac, ez dezala ⁴⁵⁵permititu etorri dadien gure memoriara onelaco pensamenturican. Maria Santisimaren concepcione garbian Jesucristoren corpuz eta anima formatu ciran ordu artan berean izandu zan Señora au santificatua eta insta(*nte*) ontan berean cergatic arquizen ⁴⁶⁰zan guztiz garvia, guztiz santua, guztiz ederra Jaungoicoaren beguetan. Celebratu zuten Aingueruac ceruan concepcioneco festividade glorioso au. Eta emen cein ederra ote dan persona bat gracian egotea. Elegitu nayaz Jaungoicoac ama bat dignoa bere ⁴⁶⁵dibinidadearena ezuen nai izan distinguitua izan zadien bere sorcean, bere nacementuan, ezuen nai izan zedien aberasa ondasunaz betea, baicic graciaz bacarric; ezuen bete nai izan bere ama orrez eta cillarrez baicic birtutez. Bere escuetan ceducan nai izan balu escogitu bere ⁴⁷⁰amazat munduan zan señoraric principalena, bere disposicionera zeducan nai izan balu eguin bere ama mundu guziaco Erreguina, baño Jaungoicoac ezuen pensacen munduco bentajetan, hainbeste deseacen dituztenac gendeac. Ventaja oc guztiac ezuten ⁴⁷⁵distinguituco Maria Santisima berce gañeraco gendetatic eta Jaungoicoren amac merechi zuen distincione bat inorquere ezueña eta orgatic conceditu cion becatu originalaren mancharic gave concebitua izatea. Bai N.A.M. gracia, pureza eta santidadea Aingueru ⁴⁸⁰eta santu guztiac baño gueyago, da Maria Santisima distinguien duena berce creatura guztietatic. Ain aundia, ain ederra da gracia eze elegicera eman balio Jaungoicoac Maria Santisimari cein nai zuen gueya(*go*) edo Jaungoicoaren ama izatea edo becatuaren ⁴⁸⁵mancharic gave concebitua, elegituco zuen becatuaren mancharic gave concebitua izatea, Jaungoicoaren ama izen baño lenago. Emendic pensa dezaquezue cein ederra ote dan gracia eta *c(e)*in isusia becatua.

Maria Santisima gure begietan presentacen zacu ⁴⁹⁰berce emacumec bezala, baño bere barrenean da emacume guztiac baño gueyagocoa, orgatican deicen diogu bedecatua andre guztien artean. Ura izan zan santificatua bere Ana amaren sabelean. Señora onen sorcea izan zen ⁴⁹⁵santua, eta bere vici guztian ezuen galdu. Berce ganeraco guizon eta emacumeac yequiac izan dira becatutic graciaren medios, baño Maria santisima sostenitua izan da erori gave eta merito gueyago du becatuan erori gave sostenicen duenac, orori ondoren ⁵⁰⁰yequicen danac bano.

Maria Santísima preparatu zuan espiritu santuac Trintateco bigarren personaren habitacionea izateco eta orgatic adornatu zuen graciaz eta virtutez eta edertua pensa daitezquen preciosidade eta perfeccione ⁵⁰⁵guztiaz, ala nola *nade* guztiac sarcen baitira Ysasora, modu berean Maria Santisimaren viozera concebitu zan instante berean sartu ciren Jaungoicoac eman dechaquen graci guztiac, eta au da motivoa cergatic Eliz ama santuac paratu zuan ⁵¹⁰festividade au ama virgíña concepcionecoaren tituloa emaiten ciola eta nai du fiel guztiac junta dechaten alabanza guztiac festibidade onetan celebraceco pribilegio glorioso au; beneracen baditugo santuac beren merito particular(*r*)az aunicez gueyago biar dugu ⁵¹⁵veneratu Maria Santisima, cergatic arc bacarric duen santu eta santa guztiac baño merito gueyago. Ala(*ba*) zaizatela Señora soberana mundu guztiac...

(*conclusión*) Eta cer provechu atera biagu Maria santisimaren concepcione garviatic? Evita dezagueguque pecatuan ⁵²⁰sortuac ez izatea? Ez N.A.M. ez dezaquegu desgraci au evitatu. Guc eguin dezagueguena, da ez egui(*n*) becuric. Icasí biar deguna M.Ss. concepcione garviatic, da cein estimagarria dan gracia eta cein isusia dan becatua; icasi bihar deguna da graciac balio ⁵²⁵duela munduco ondasun guztiac baño gueyago, eta orgatic Jaungoicoac ezuen bete bere ama ondasunaz ba(*i*)cican graciaz, eta gracia au galcea dala izigarrizco desdicha. Baño munduan izan daitequen desgraciatic aundiena, consueloric ez duena, da becatuan ⁵³⁰ilcea. Desgracia da becatuan sortuac izatea; becatu(*a*) guencen da bataio santuaren medioz, baño becatuan ilcea da desgraci guztien desgracia, erremedioric ez duena segula guztietan.

Gure atencione guztia eraman biar duena gaurcoan ⁵³⁵da M.Ssma. izan bazan ere concebitua becatuen mancharic gave eta ezin eguin zezaquen becuric, baño alare vicitu zan erretiratu, apartacen zan ocasionetatic eta aumentatuz yoan zan virtute eta merezimentuetan; bada cenbatez gueyago bear ⁵⁴⁰dugu guc apartatu becatu eguiteco ocasionetatic izanic becatari miserableac? Ezagu dezagun gure miseria A.M. eta acuditu Maria Ssma. Concepcionecoaren patrociora. Reverencia dezagun eta alabatu señora onen escelencia, ⁵⁴⁵eman dazquiogun milla enhorabuena ya cergatic izan zan becatuen mancharic gave concebitua y(*a*) cergatic dan Jaungoicoaren ama. Baño oroitu gaitecen señora au alabaceco erremedioric oberena dala seguitu virtuteetan, eta virtute oc conseguituco ⁵⁵⁰ditugu Ama virginari devocio eguiatzco bat izatearequin. Baño badaquizute cein dan devocioric oberena señora onenzaco? Bacuizac bere obligacioneac cunplicea. Ez da posible izatea M. Ss. devotoa ezbadira guardacen seme divinoaren ⁵⁵⁵mandamentuac. Ezaguturic bada oraindano ez diogula obeditu, nai badegu emendatu acudi dezagun confianzaric aundienarequin señora onengana eta arc al(*can*)zatuco dazquigu biar ditugun disposicioneac confesio on bana eguiteco, eta ilceco graciezco ⁵⁶⁰estaduan, nondic goaten dan eternidadeco gloriara, deseacen dizu(*e*)tena guztioy. Amen

HIZTEGIA

ADERATU. *Ateratu.* eta aderatu dadela agotic (b 310)

AGO. Eta aderatu dadela agotic (b 310)

AINBERCE. *Ainbeste.* Icusi zuenian Sn. Pedroc ainberce guende (b 253); ainbeste deseacen dituztenac gendeac (c 474)

- AINBESTE. *Ainberce*. ainbeste balio zuen gauza (a 12); ainberce urtez muguicen ezan pobre ura (b 250)
- AINE. Berac aine balio duela (a 138)
- ALCHA. Biar da alchatu vioza Jaungoicoagana (b 272)
- AMA. Elegitu zuena Jaungoicoac bere ama zan (c 441)
- ANCINIAN. Yarriric bere ancinian (c 363)
- ANIME. *Anima*. da gure anime, gure anima bai (a 8); gure anime dago mille peligro eta tempestades inguraturic (a 14); persona justo baten anima (a 85) Ik. *Arima*.
- ARIMA. *Anima*. Galdeguin zagozu demonioari cenbat balio duen zure arimac, eta errespondituco dizu zure animarengatic emanen dizula mundu gucie (a 134)
- AUNIZ. *Aniz*. Aunicec edo guciec obequiago portatuco liraquela (a 3); gaurco egunian badira auniz persona (a 43); es da oja bat siquiera arquicen izen santu au aniz aldiz erraten ez dana (b 296)
- BARTE. Parte. Maria santisimaren corpuzaren barte bat (c 448)
- BECATARI. *Pecatori*. Becatariac asqui da becatuas (a 149); irreteturic peccatarien contra (a 98)
- BECATU. *Pecatu*. Egon baliza sugeto, gu bezala becatuara (c 440); eguiten duenian becatu mortal bat (a 113); pecatua dala medio (c 405); pecatu originalaren macharic gave (c 394)
- BEDEICATU. *Bedeincatu*. Bedeicatu, señora (c 384); bedeicatu andre guztien artean (c 492)
- BERCE. *Verce*. Ez dago bada verce erremedioric (a 158); eta bercenaz jaungoicotasunian ecezaquen padecitu (c 336); berce gañeraco (c. 422; c 475)
- BILDUR. Cergatic bildur izanen liceque (a 97); ez bildur izan señora (c 372)
- BORZ. Corpuzaren borz sentidoaquin (a 28)
- CAPAZ. Negar eguingo luquetela Aingueruec capaz balire (a 108)
- CEINBAIT. Peligro ceinbaitetan (b 318)
- CERUE. Consegui badezaqueguque instante batian cerue (a 79)
- CIEN. *Cein*. Icuschazute emen cien gaizqui portacen diran auniz gende (b 188); Ecus zagun cein ona dan gracie (a 33).
- CONCEPCIONE. Concepcioneco misterioa (c 389)
- CORPUZ. *Gorpuz*. Guizonaren edertasuna adornaturic corpuzaren borz sentidoaquin (a 29); eta instante formatu zuen espiritu santuac J.C. corpuza (c 383); encar(*na*)tua corpuz manchatu batean (c 435)
- CHIMISTA. Ateraco baliz hosti consagratu artatik chimista bat (a 164)
- CHIPI. Becaturic chipienarequin (c 435)
- DESGRACIE. Ecus zagun cein ona dan gracie, eta cer dan Jaungoicoaren desgracie (a 33)
- DEUS. Criatu zuen anime deusezetaric (a 27); arrengetic trucacen dute deus ezten gauza batengatic (a 35)
- ECUSI. *Ikusi*. Baño ecus zagun oray (a 85; a 86); ecusten ez den undasun au (a 4); ecus zazue emen (a 28); eta icusico duzue (b 190); desdichartan icusiric (b 235)
- ENCARNACIONE. Aingueruac anunciatu cionean encarnacioneco misterioa (c 436)
- ENCARTUA. *Encarnatua*. Ezan decenete Jaungoicoaren semea izan zadian *encartua* corpuz manchatu batean (c 435)
- ESAY. *Exay*. Gueldicen dira esayac izituac (b 215); exay sobervio ayec (b 205)
- GARAITU. Guenduco tuzue garaituco tuzue guztia (b 220)
- GAUZ. Gauz arrigarria da au (a 81); gauz arrigarriric (a 115)
- GENDE. *Jende*. *Yende*. Hainbeste deseacen dituztenac gendeac (c 474); Cien gaizqui portacen diren auniz gende (b 189); Icusu zuenian Pedroc ainberce jende (b 253), Ysraeleco yendeac (b 255)
- GOAN. An egoten cen escazen limosna Elizarat goaten ciren persona guztia. Goan ciran egun batez Sn. Pedro eta Juan (b 231)
- GORPUZ. *Corpuz*. Bere gorpuz corruptible ontan (a 2); eta corpuz corronpitu ontan (a 80)
- GRACI. Bihar dudan graci guztia (c 388); graci especialas (c 423)
- GRACIE. Ecus zagun cein ona dan gracie, eta cer dan Jaungoicoaren desgracie (a 33)
- GUCI. Guzti. Aunicec edo guciec obequi portatuco liraquela (A 3); Aingueruetaranoco guciec (a 4); duten gucia emanen dazut (b 241)

- GUENDU, *Guentu*. Ken. Guenduco tuzue garaituco tuzue guztiac (b 220); guendua tristeza (b 310); cergatic bildur izanen liceque guentuco ote dion bicia (a 97)
- GULPANTE. Gulpantiac izen balira bezala (b 262)
- GUTI. Eta gutiago izan biar zuan Aingueru guztien errequina? (c 443); egun gutien barrenean (c 261)
- GUZTI. *Guci*. Bihar dudan graci guztia (c 388); guztiac sorcen guera (c 397); guztiac sorcen gare (c 404); Mundu guciaco Errequina (c 412); eternidade gucian (b 204)
- ICUSI. *Ecusi*. Icus zazue bada peccariet (a 142); ecusiric becatu mortal batequi animac errecibicen duen desgracie (a 142)
- IDUQUI. *Idugui*. Iduqui zazue compasioa (a 146); idugui zazu misericordia (a 145); Iduquiric principe guztien Erreguea irreteturic (a 97)
- INFERNU. *Infarnu*. Condenatuec infernuco suetara (a 107); infernuco calabozotara (b 213); abrasaturic bialduco bacinuza infarnuetara (a 165); gu sortcen guera infarnuco heredero eguiñac (c 410); infarnuetara (b 203)
- IRICHI. Bada ojala iriquico baliz lurra eta irichico balu viciric (a 162)
- IRRETETU. Eta iduquiric principe gucian Erreguea irreteturic (a 98)
- IRURI. *Iduri*. Iruri zaizue errazago dela oroicea trance miserable artan? (a 125)
- IZAN. *Ezan*. Bada ez da ezanen temeridade aundiagoa, ez da izanen atrebimentu aundiagoa (a 54)
- IZIGARRI. Tormentu izigarriac (b 203); gracia au galcea dala izigarriaco desdicha (c 527)
- IZITU. *Izutu*. gueldicen dira esayac izituac (b 215)
- JAUNGOICOA. *Jauncoicoa*. *Jauncoa*. Jaungoicoac berac erran cioten Apostoluay (b 221); Jauncoicoaren semea (c 385); bihar dut Jauncoaren gracia (b 192)
- JURAMENTAZALE. Juramentazale desdichatuac (b 277)
- MACURRA. Arquicen zan pobre bat mancoa edo macurra (b 229)
- MAIZ. Ez bazuen maiz adicen Jesusen izen sa(n)tu au (b 298); espero dut deituco duzutela ainciniam maiz Jesusen izena (b 286)
- MANCOA. Arquicen zan pobre bat mancoa edo macurra (b 229)
- MERECHI. Jaungoicoaren amac merechi zuen (c 476)
- MILLE. Gure anime dago mille peligro eta tempestades inguraturic (a 14)
- MINGAIN. Ez da mingainic explicatuco duenic (a 84)
- MIRACULO. Cer icusten duzue miraculo onetan? (B 255)
- ONDASUN. Cenbateco ondasuna daduquen gorpuz corruptible ontan (a 1)
- ORAY. Oray artian (b 328)
- ORGATIC. *Argatic*. Orgatic estado graciascoan dagonaren anime (a 39); argatic seguicen dute paganoaren leguea (a 44)
- ORRE. *Urre*. Ezuen bete nai izan orrez eta cillarrez (c 468)
- PARATU. Ez dut dudaric paracen (a 2)
- PASIONE. Pasiona eta gusto pasagero batengatic (a 36)
- PECATU. *Becatu*. Pecatu originalaren mancharic gave (c 394); beccariac, asqui beccatuas (a 149).
- PELAYA. Batalla edo pelaya artan (b 210)
- POBRE. *Probe*. Pobreat limosna escacen (b 233); limosna escacen icusten cinuten probe ura (b 260)
- PROBE. *Pobre*.
- PROPIOA. Gueren virtutearequin eguin dugula milagro au? (b 256)
- REMEDIETU. Bada remedie zazu (a 152)
- SENDADU. Noren virtutearequin sendadu duzue? (b 264)
- SOSEGU. *Sosegatu*. Ez lizaque vicico soseguen (a 96), egoten dira sosegu onarequin (a 115); ez da sosegacen ez du loric eguiten (a 112)
- TRUCATU. Orrengatic trucacen dute deus ezten gauza batengatic (a 35)
- UADE. *Ualde*. Ala nola uade guztiac sarcen baitira ysasora (c 505)
- URRIQUIL. Jesus Daviden semea urriquil zaite gutaz (b 339)
- YAN. Eta yaten edo edaten baduzue ceinbait gauza (b 224)
- YARRI. yarriric bere ancinian (c 363)
- YEQUI. *Jaiki*. Jesus nazarenoren izenian yequi zaite eta zoaz. Lagundu cion berac yequicen eta icus zazute desdichatu ura sano (b 243)
- ZORE ONA. Eta zore onean (c 424); logra deza(*gun*) guztioc eterniadadeco zore ona (b 337)

LABURPENA

Gerra ondorean galdu zen Arakil ibarreko euskara. Mende honen erdi aldera adinekoek bakarrik mintzo zuten zenbait herritan. Geroztik bakarkako pertsona batzuek gorde dute berandu arte. Hegoaldeko goi-nafarreraren multzoan Oltzako azpieuskalkizat eman zuen Bonaparte printzeak eta hamabi herri sartzen dira bertan. Irañeta ta Murgindueta, alderantziz, Uharte Arakilgo azpieuskalkian sailkatu zituen, ipar-goi-nafarreraren barnean. Hain berandu arte iraun duen mintzaira honen izkribu guti agertu da bazterretan eta horregatik baliagarri gerta daitezke Arruazun jasotako lekukotasun hauek. Nafarroako euskalkiaren mugako testuak dira, nolana ere, hiztegia nahiz aditz formatan gipuzkeraren kutsu handia nabarmentzen baita.

RESUMEN

El euskera se perdió en Arakil a raíz de la guerra española. A mediados de este siglo únicamente lo hablaban las personas mayores en algunos pueblos. Posteriormente, sólo quedó el testimonio de personas aisladas. El príncipe Bonaparte lo clasificó como subdialecto de Oltza dentro del alto-navarro meridional, a excepción del habla de Irañeta y Murgindueta, asignados a la variedad de Uharte Arakil dentro del dialecto alto-navarro septentrional. A pesar de tan tardía pérdida han aparecido pocos textos del mismo, por lo que pueden ser interesantes estos escritos procedentes de Arruazu. En todo caso, es lenguaje fronterizo dentro del dialecto navarro a juzgar por la fuerte incidencia de léxico y formas verbales guipuzcoanos.

RÉSUMÉ

L'euskera s'est perdu dans la zone d'Arakil à la suite de la guerre espagnole. A la moitié de ce siècle, seules les personnes âgées le parlaient dans certains villages. Postérieurement, il ne resta que le témoignage de quelques personnes isolées. Le prince Bonaparte le classifia comme sous-dialecte d'Oltza dans le haut-navarrais méridional, à l'exception du parlé d'Irañeta et Murgindueta, assignés à la variété d'Uharte Arakil dans le dialecte haut-navarrais septentrional. Bien que cette perte eut lieu assez tard, peu de ses textes ont apparus, et c'est la raison pour laquelle ces écrits provenant d'Arruazu peuvent être intéressants. Dans tous les cas, c'est un langage frontalier dans le cadre du dialecte navarrais, à en juger d'après la forte incidence de lexique et formes verbales de Guipuzcoa.

ABSTRACT

The Basque language disappeared from Arakil as a result of the Spanish Civil War. In the midtwentieth century, none but the eldest members of some village communities spoke the language. After that period, there solely remained the testimonies that a few insolated individuals had to offer. Prince Bonaparte classified all the Basque spoken in the region as a sub-dialect from Oltza, part, in turn, of the Southern Upper-Navarrese dialect; all, that is, except the spoken language found in Irañeta and Murgindueta, which were assigned to the Uharte Arakil variety under the heading of the Northern Upper-Navarrese dialect. Despite its relatively late disappearance, very few texts written in this variety have come to light. It is for this very reason that these texts from Arruazu might prove of interest. Within Navarrese dialect, the language used can be considered a "border" one, if we are to judge by the strong incidence of Guipuzcoan lexicon and verb forms.